



Arartekoaren 2014S-306-14 ebazpena, 2014ko ekainaren 12koa. Horren bidez, EITBri iradoki zaio programazio ekoizleei zuzendutako jarduteko protokolo jakin batzuk abiarazteko aukera azter dezala. Horren xedea, animalien kontrako arazorik eza eta ongizatea bermatzen duten kontrol-neurriak ezartzea da.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan zenbait kexa-idazki jaso dira, horietan, EiTbko "El Conquistador del Fin del Mundo" izeneko programan animaliek pairatzen dituzten tratu txarrak salatu dira.
2. Alde batetik, programa horretan garatzen diren probak salatu dira, hala nola, bizirik dauden animaliak jatea eta, bestetik, beste proba hau salatu dute: parte hartzaileek haginkadaka goitik behera irekita dagoen animalia baten gorputik zatiak erauzi behar dituzte. Aipatutako idazkietan azpimarratzen da programa horren iragarkia, deskribatutako edukiak barne hartzen dituen, ordutegi babestuaren barruan behin eta berriro erakusten dela.
3. Erakunde honek egindako eskaerari erantzunez, EiTbko zuzendari nagusiak honakoa jakinarazi zigun: *"...Aztergai den programa reality bat da, biziraupen-proba muturrekoak jartzen dituena ingurune-egoera oso muturrekoetan. Azken emaitzarako, banakako eta taldekako lorpenak hartzen dira kontuan. Lehiatzaileak euren borondatez aurkeztu dira castingera, eta badakite zein diren programaren ezaugarriak. Programa ordutegi babestutik kanpo emititzen da, eta indarrean den legeriaren a ramera seinaleztatuta daga. Inoiz, programaren autopromozioa egin denean, ordutegi babesturako egoki ez diren irudiak erabili dira, eta, gertakizun horretaz jabetuta, prebentzio-neurriak hartu dira, berriro jazo ez dadin. Produkzio eta errealizazio arrazoiengatik, programa Hego Amerikako Konoko hainbat tokitan grabatzen da, eta grabazio-aldia ez datar bat emisio-aldiarekin. Azken edizioa Amazoniako oihanean daga girotuta, eta indiar guaraniak ere azaltzen dira. Programako hainbat proba guaranien bizimoduan eta ohituretan daude inspiratuta. Nolanahi ere, programako produkzioak hornitzen dituen abereak etxalde edo denda espezializatuetatik datoz. Esandako guztiagatik, denboraldi honen gainerako eta etortzeko diren edizioetarako, EiTbko ordutegi babestua zaintzeko konpromisoa berresten du, indarrean den legeriak zehaztu bezala, eta produkzio-etxearen arduradunak denon interesak bateratzeko beharrezkoak jakitun ipiniko ditu.*



Gogoetak

1. EITBk emandako informazioa ikusita, esan dezakegu erakunde horrek babestutako ordutegia errespetatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko konpromisoa hartu duela, baita zalantzan jarri den programaren ekoizlearen arduraduneri interes ezberdinak bateratzeko beharra helarazteko konpromisoa ere.
2. Horri dagokionez, aipatu nahi dugu geroz eta sentikortasun sozial handiagoa dagoela, animaliak babesteko berme handiagoak eskatzen dituen. Zentzu horretan, Ararteko erakundeak uste du errealitate horrek animalien erabileraren inguruko eskema kontzeptualak berraztertze beharra mahai gainean jarri duela. Horregatik, argi dago telebista publikoa, edonola ere, saiatu beharko litzatekeela edozein bizimodurekiko errespetua sustatzera zuzenduta dauden balioak bultzatzen.

Kexan bildu diren datuak ikusita eta erakunde horrek zein kexagileek bidalitako informazioarekin eta egindako gogoetekin bat eginez, honako iradokizun hau egiten dugu:

IRADOKIZUNA

Programazio ekoizleei zuzendutako jarduteko protokolo jakin batzuk abiarazteko aukera azter dezala. Horren xedea, animalien kontrako arazorik eza eta ongizatea bermatzen duten kontrol-neurriak ezartzea da.